AYUNTAMIENTO DE CAMPEZO
KANPEZUKO UDALA
(Alava-Araba)
Fecha: - 1 OCT 2018
ENTRADA/SARRERA SALIDA/IRTEERA
Nº./Zbkia. 592

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
*Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetza*
*Garraio Plangintzaren Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS
Viceconsejería de Infraestructuras y Transportes
*Dirección de Planificación del Transporte*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
DPTO. DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS
2018 IRA. SEP. 27

| SARRERA | IRTEERA |
|---|---|
| Zk. | Zk. 338738 |


KANPEZUKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE CAMPEZO
ALKATE-LEHENDAKARI ANDREA/SRA. ALCALDESA-PRESIDENTA
Ibernalo Basterra Txasko andrea

Azaroaren 23ko 307/2010 Dekretuaren bidez, II. Euskal Autonomia Erkidegoko 2005-2016 eperako Errepideen Plan Orokorraren berrikuspena onartu zen. Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 8.1 artikuluaren arabera, planak 12 urteko iraupena izango du, baina luzatu egin ahal izango da, berrikuspenen bidez.

Horrela bada, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Errepideen Plan Orokorraren Batzordeak egindako proposamenak aztertu ondoren, foru aldundiekin eta lurraldearen antolamenduaren eta ingurumenaren, garraioaren, trafikoaren eta ekonomiaren arloan eskumenak dituzten beste organoekin koordinaturik, III. Errepideen Plan Orokorraren Aurrerapena idatzi du, 2017-2028 aldirako; berrikuspen horretan Planaren xede den sarean gutxienez egin beharreko aurreikuspenak, helburuak, lehentasunak eta hobekuntzak jaso dira.

Errepideen Plan Orokorra euskal administrazio publikoek errepideen arloan duten antolamendu eta koordinaziorako funtsezko tresna da, eta plangintzako gainontzeko tresnekin uztartzeko ondorioetarako, lurraldearen antolamenduko arloko planaren izaera dauka; beraz, onartzen denean, udalerrietako eta hirigintza-eremuetako antolamendu orokor eta bereziko tresnak plan horretan jasotako zehaztapen eta lehentasunetara egokitu beharko dira.

Mediante Decreto 307/2010, de 23 de noviembre, se aprobó la revisión del 2º Plan General de Carreteras del País Vasco, correspondiente al período 2005-2016. De conformidad con el artículo 8.1 de la Ley 2/1989, de 30 de mayo, reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco, el Plan General de Carreteras del País Vasco tendrá una duración de 12 años, prorrogable mediante revisión.

Por ello, este Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras, previo examen de las propuestas formuladas por la Comisión del Plan General de Carreteras, y en coordinación con las Diputaciones Forales y con los demás órganos administrativos competentes en las áreas de ordenación territorial y medio ambiente, transporte, tráfico y economía, ha redactado el Avance del III Plan General de Carreteras, correspondiente al período 2017-2028, que contiene las previsiones de actuación, objetivos, prioridades y mejoras a realizar en la Red Objeto del Plan.

El Plan General de Carreteras constituye el instrumento fundamental de ordenación y coordinación de la política sectorial de las Administraciones públicas vascas en materia de carreteras, y tiene, a los efectos de inserción y articulación con los demás instrumentos de planificación, el carácter de Plan Territorial Sectorial, por lo que, una vez aprobado, los instrumentos de planeamiento general y especial de los municipios y áreas urbanísticas afectados deberán adaptarse a sus determinaciones y prioridades.

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 97 14 – Fax 945 01 97 88 – e-mail dt-trans@euskadi.eus

III. Planaren Aurrerapenak Errepideen Plan Orokorraren Batzordearen aldeko txostena jaso zuen 2018ko uztailaren 2ko bileran.

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 12.3 eta 12.4 artikuluetan ezarritakoari men eginez, aurrerapen hori osatzen duen dokumentazioa jendaurrera atera beharra dago, bi hilabeteko eperako, eta aldi berean, administrazio publiko interesdunei entzunaldia eskaini, oharrak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Horretarako, eta 2 hilabeteko epean jakinarazpen hau jasotzen den egunetik hasita, dokumentazioa ikusteko moduan izango duzu, www.euskadi.eus webgunean, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko atalean ondoko estekan: http://www.euskadi.eus/web01-a1bideko/eu baita Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan ere, Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1ean. Beraz, dokumentua aztertzeko aukera izango da, zure parte hartzea interes handikoa baita entzunaldiaren izapide honetan, behin-behinekoz onartu aurretik, egoki ikusten dituzun irizpideak, konponbideak eta zehaztapenak proposatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 19a.

El Avance del III Plan ha sido informado favorablemente por el Pleno de la Comisión del Plan General de Carreteras, en sesión celebrada el 2 de julio de 2018.

Procede, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 12, apartados 3 y 4 de la Ley 2/1989, de 30 de mayo, reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco, someter a información pública la documentación del Avance y, simultáneamente, dar audiencia a las Administraciones Públicas interesadas, para que puedan formular sus observaciones y sugerencias.

A tal efecto y durante el plazo de 2 meses desde la recepción de esta notificación, la documentación estará a su disposición en la página web de Internet www.euskadi.eus, en el apartado del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras, en el siguiente enlace: http://www.euskadi.eus/web01-a1bideko/es, y en la Dirección de Planificación del Transporte, del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras, en Vitoria-Gasteiz, C/ Donostia-San Sebastián nº 1, para que pueda analizarse el documento, siendo de gran interés contar con su activa participación en este trámite de audiencia para proponer los criterios, soluciones y determinaciones que estime preciso incorporar en el mismo antes de su aprobación provisional.

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de septiembre de 2018.

Garraio Plangintzaren zuzendaria
La Directora de Planificación del Transporte

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

Janire Bijueska Bedialauneta